

IRAGARKIA

Udal honetako Osoko Bilkurak, 2000ko maiatzaren 5ean izandako batzarrean, Azokako aparkalekuaren Barne Araudiaren hasiera onartu zan, jarraian jartzen dan testuagaz, 30 eguneko epe barruan nahi diran alegazio edo iradokizunak aurkeztu ahal izateko. Ezelako alegaziorik aurkeztuko ez balitz, behin betikoz onar- tutako ulertuko litzateke.

UDAL AZOKAKO GARAJEAREN LURSAILAK ERABILTZEKO UDAL ORDENANTZA

1. *Xedea:* Ordenantza honen xedea da Bermeoko Zubiaur tar Kepa 26-28an dagoan Azokako garajearen lursailak erabiltzea.

2. Titularitatea:

1. Bermeoko Udala garajearen lursailen jabea da. Jabego- ondasunak dira eta udal zerbitzu publikoa. Udal Azokako eraikinaren soto eta erdisoto solairuetan kokatuta dagoz eta ibilgailuak gordeteko erabiltzen dira.

2. Ibilgailuak zaintzeko zerbitzurik ez da emongo inola ere.

3. Udala 139 lursailen titularra da eta curen motaren arabera honela dagoz bananduta:

- 1. Mota: bere azalera kontuan izanda, motore edo atoi txikiak sartzen dan lursaila, lursail txikia legez ezagutua.

- 2. Mota: Turismoak sartzen diran lursaila, lursail normala, hain zuzen ere.

- 3 Mota: Turismoa sartu eta erantsita trasteleku itxia daukan lursaila, trastelekudun lursaila lgegez ezagutua.

4. Lursail bakoitza, zein solairutan dagoan kokatuta, horrela daga identifikatuta, solairuan daukan lursail zenbakiagaz. Aurreko atalaren arabera zein lursail-mota barruan dagoan ere azaltzen da erantsitako planoetan.

3. *Erabilera*: Udalak, lursailetakoko jabe madura, lursailak hartu eta ibilgailuak gordetera bakarrik erabiltzeko eskubidea emongo dau, urtebeterako kontzesio-lizentzia bidez, eta ondorengoaren arabera:

1. Ordenantza hau onartu aurretik eskaririk egin ez dalako hutsik egon diran edo geratu diran lursailak, xedapen iragankor bakarren arabera, iragarki publiko bidez eskainiko dira, lizentziaren kontzesioan interesatuta dagozanek eskatu daiezan.

2. Ezarritako epe barruan egindeako eskarien kopurua hutsik dagozan lursailena baino handiagoa balitz, lizentziak zozketa bidez emongo lirateke, eskatutako lursailaren mota kontuan izanda eta bakoitzarentzat jarritako oinarrien arabera.

3. Aurreko eskatzaileen eskariak bete eta gero lursailik gertatu balitz hutsik, lizentziak Udaleko Erregistro Orokorrean sartutako eskarien hurrenkeran emongo lirateke.

4.- Egin ziranean lursail hutsik egon ez dalako lizentziarik lortu ez daben eskariak lehentasuna izango dabe lursailen bat hutsik geratzen dan momentuan, eskaeren hurrenkera eta eskatutako lursail mota kontuan izanda.

5. Lizentziaren iraupena, emoten dan momentu beretik urte naturalaren azken egunerartekoa izango da, beti ere, baxerik eskatzen ez bada lehenago.

6. Aurreko atalaren arabera emondako lizentzia automatikoki luzatuko da jarraiko beste lau urtetan, 2004ko abenduaren 31 rarte. Beti ere, erabiltzaileak baxerik eskatzen ez badau egun hori orduko edota Udalak lizentzia kentzen ez deutson bitartean Ordenantza honetan emongo dan arrazoiren bategaitik.

4. *Eskaria*: Lursailak erabiltzeko interesatuta dagozanek Ordenantza honeri erantsitako eskaera-inprimaki bidez eskatu daikie Udaleko Erregistro Orokorrean sarturik, Xedapen Iragankor bakarrean ezarritakoa salbuetsita.

5. *Lursailak erabiltzeko baldintzak*:

1. Alkatearen eskuduntza izango da lizentzia emotea.

2. Lizentzia ezin izango da eskuz aldatu.

3. Lizentzia emon eta gero, erabiltzaileari sarbideko atea automatikoki zabaldu edo izteko aginte-tresna emongo jako.

4. Erabiltzaile bakoitzak aginte-tresna bi izan daitez gehienez. Bigarren tresna lizentziaren titularrak espreski eskatuta emongo da eta jagokon tasa ordaindu eta gero.

5. Aginte-tresnarik galduz gero, Azokako arduradunari edo- ta Udaltzaingoari jakinarazi beharko jako 24 orduren barruan, balio- gabetu ahal izateko. Udalaren iritziz galera hori gertatu bada erabiltzailearen doloz, erruz edota ardurabakokeriz, edota horreterako jarritako epe barruan galera horretaz konturatu ez bada, erabiltzaileak izan leikezan erantzukizunei aurre egin beharko deutse, guztia lizentzia iraungitzearen kalte barik. Aginte-tresna barria emoteko jagokan lizentzia ordaindu beharko da.

6. Lizentzia emon eta gero, interesatuak lursaila hartu leike ordutegi muga barik.

7. Lursaila erabilera eta motaren arabera hartuko da, beraz, ezin izango da hartu ez bertan itzi materialerik ez lizentziaren xede- tik kanporako beste ezen.

8. Emondako lursailaren azalerara mugatuko da erabiltzaile bakoitza, muga hori ezin izango da nola ere gainditu.

9. Lursailak erabiltzeak tasak ordaindu beharra ekarriko dau, jagokon ordenantza fiskalak ezarritako erara.

10. Sarbideko atea berehala itxi beharko da ibilgailua sartu edo urten egin ondoren. Hon horrela da la arduratuko da enabiltzailea.

11. Ate, instalazio elektrikoak, kontrolekoak, alarmak, bulegoak eta beste edozein instalazio motatan eskua sartzea debekatuta daga.

12. Zubiaur tar Kepa kaleko ate nagusia izango da lursailerako sarbide bakarra eta Dolariaga kaleko atea larrialdietarako bakarrik erabiliko da.

13. Garajearen sarrera-urteeretan eta barruan ere, gurutzatze-argia erabili beharko da segurtasunerako.

14. Gertatuko leiteken edozein gorabehera Azokako arduradunari edo bestela Udaltzaingoari jakinarazi beharko jako.

15. Udala ez da arduratuko ibilgailuetan edota ibilgailu artean gerta leitekezan kalteetaz, ez eta lapurretetaz ere, ez autoak eurenak ezta euren barruko gauza edo elementuenak.

16. Erabilitzaileak berak izango dau higiezinari edo beste edozein instalaziori eragindako kalteen erantzukizuna.

6. *Lizentziaren galera:* Udalak lizentzia iraungitzea erabaki leike hiru arrazoigaitik:

1. Lizentziaz kanpoko gauza, ibilgailu edo materialak sartu dauzalako garajeen.

2. Urtebetean aginte-tresna birritan edo gehiagotan galdu daualako edota batean bakarrik, doloz, bere erruz edota ardurabakokeriz izan bada.

3. Tasarik ez daualako ordaindu eta kobratzeko premiamendu prozedura erabiltzearen kalte barik.

4. Instalazio amankomunak txarto erabiltzeagaitik edota instalazioetan eskua sartu.

5. Lursailaren lizentzia edo errentamendua eskuz aldatzeagaitik.

7. *Kontratua:* Adjudikatutako lanpostua hartu aurretik, aparkamendu zerbitzuaren erabilitzaileak zerbitzu publikoaz gozatzeko jagokon kontratua sinatuko dau, ondenantza honen eta baita fiskalaren klausula guztiak eta bakoitza espreski onartunik, baita udalak etorkizunean egin leikezan aldakuntza guztiak ere, eta bere ahal- mena erabiliz ezarri leikezanak.

ZEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA

Aurretiaz kontratu bat egon danez gero, lursailak lehendik, Ordenantza hau onartu orduko, erabiliak izan dirala kontuan izanda, lursailak esleituta daukiezanek lehentasuna izango dabe lizentzia emoteko orduan. Horretarako epe bat emongo jake eta orain arteko lizentziari uko egin ezean edo bajarik emon, jarraitu egin gura daua- la eta araudia onartzen dauala ulertuko da.

INDARREAN SARTZEA

Ordenantza hau indarrean sartuko da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean behin betiko onarpena argitaratzen dan hurrengo egunean.

1.ERANSKINA

ESKAERA ORRIAREN EREDUA

BERMEOKO UDAL AZOKAKO GARAJEA

GARAJEKO LURSAILAREN ESKAERA ORRIA

Lursail zenbakia:.....Solairua:.....

Lursail mota: Turismoa(2) Trasteleku(3) Motorea(1)

Izena: Abizenak:.....

Helbidea:

NAN:Telefonoa:

Ordainketa: Eskudiruz Banketxean helbiderartuta:

Kontu zenbakia:.....

Eguna:

Arduraduna

Eskatzailea

Oharra: Eskatzailea baja eskaera bete arte indarrean ulertuko da abono hau.

ANEXO 2

BAJA ESKAERA EREDUA

BERMEOKO UDAL AZOKAKO GARAJEA BAJA ESKAERA

El usuario abajo indicado solicita su baja como tal del garaje del Mercado Municipal:

Erabiltzaile zenbakia:

Lursail zenbakia:..... Solairua:.....

Lursail mota: Turismoa(2) Trasteleku(3) Motorea(1)

Izena:..... Abizenak:.....

Helbidea:

NAN: Telefonoa:.....

Eguna:

Arduraduna

Eskatzailea

Bermeo, 2000ko uztailaren 12an.- Alkatea.